

Karlos Gorriñdo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA

Zoriontasuna

H ordiak, umeak eta inozotasunaren linboan bizi direnak baino ez ei dira zoriontsu askoren ustetan. Tartekamarteka, geure burua oreka psikoafektiboei eusteko gai garenok ere, barrenak bare eta masailean barre jartzen digun egoera haizezko hori sentitzeko gauza ere bagara bizitzan, antza. Bestalde, beti esan izan da dirua dela zorionbidean jartzen gaituen metal preziatu bakarra, eta ez dela beste bidezidorrik (psikotropikoei ematen dutenez gain) erabateko zoriontasunera eramateko gai denik. Oraingo honetan baina, ez diruak ez erlijio-sinesmenak ez dute gizakia ezti-mamitan jartzeko gaitasunik. Erlijioa baztertuta eta diruari muzin eginda, zoriontsu izateko bide bakarra demokrazia dugu, demokrazia mendebaldar “marabilloso” hau, hain zuzen ere. Eta guk jakin ez altxorra non dagoen bilatzen! Edo horixe eman du aditzera, behintzat, ikerketa soziologiko “interesgarri” batek duela ez asko. Agian, mundu mailan nozitzen ari garen krisi ekonomikoaren mimenkadez edota zartakoez ahantz gaitezen-edo egina izango da azterlan zientifiko hau, murriztaldian espiritualagoak edo etereoagoak diren euskarriei oratuta, errealtate gordina bazter dezagun. Herrialde demokratikoenak omen dira, beraz, pozaren pozez egun guztian zehar ipurdiko esfinterrak estu eta gogor



INIGO AZKONA



Danimarka omen da munduko herrialderik zoriontsuena, eta Zimbabue zorigaiztoena. Suizidio kopuru altuena duen herrialde izateak ere zorionbidean jartzen ei du herrialde hori. Zimbabuetarrak, ostera, berez hiltzen dira, gosez eta tristuraz



jartzen dizkiguten sistemak. Bestelakoek, nasaitu eta zirina baino ez ligukete eragingo uzkiari. Eta badakizue esfinterrak estutzeak eiakulazio goiztiarra ekidin eta aluko giharrek indartzen dituela, bataren eta bestearen gozamen sexuala denboran luzatu eta zoriontasuna lortzeko bidean jarriz. Danimarka omen da mundu honetako herrialderik zoriontsuena, eta Zimbabue zorigaiztoena. Suizidio kopuru altuena duen herrialde izateak ere zorionbidean jartzen ei du herrialde hori, Danimarka alegia. Zimbabuetarrak, ostera, berez hiltzen dira, gosez eta tristuraz. Zorigaiztoz, jakina. Kilotan eta litrotan neurgaitza den egoera animiko-emozional etereo honek ere iparra eta hegoa jartzen ditu balantzaren alde banatan, eta pikutara jaurtikitzen ditu gure sasoi bateko uste inozoak ere. Hau da, herri txiroetako giza jendearen irribarrea zuria da (hau ironia Afrikako bizilagunentzat!), ez da zoriontsu bizi izatearen adierazgarri, esfinterra estu eta papao aurpegia izateko merezimendua Danimarka eta inguruko herriek baino ez baitute. Eta honek guztiak azken hausnarketa egitera narama. Euskaldunok dugun serio ospearekin bi ondorio garbi utzi dizkigu azterlan “bikainak”: hirugarren munduko herria gara edo gurean demokraziatik gutxi. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ari zaizkigu ingurukoak etengabe. Billboko manifik Errenteriako oreretar baten heriotza ekarri zigun, eskelaren argazkiak akordura ekarri zidana. Ez nuen harreman zuzenik berarekin, baina banekien zein zen, inguru hurbilean ikusia nuen. Orain, Txillar-ena. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalekoak Joseba bere semea agurtzeko aukera eman zidan. Aitaz galdetzean, ez zegoela ongi esan zidan, eta bere ahots tonuak Jose Luis aita bere hondarretan zela adierazi zidala iruditu zitzaidan. *Belizak* eta Balerenek bereziki nik esan ditza-kedanak argi azaldu dituztenez, ezer gutxi gainera

Joaten

dezaket. Halere, inorengandik ez dut bere musika zaletasunaren berri jaso. Pianoa zuela gogoko eta maiz jotzen zuela, bere emaztea Jone Forkadari, garai bateko Seaskako andereñoari, entzunda ikasi nuen. Eltzegorrekin Flandriara gindoazela egon nintzen berarekin Hendaian. Gure musika estimu handian zuela-eta, gonbidatu nion gurekin aritzeko. Irribarreko harriduraz, astirik ez zuela erantzun zidan. Ez zuen gogorik musikaz aritzeko eta politikara zuzendu zuen berea. Damu dut pianoan inoiz entzun ez izana, horrek seguru asko gure artekoa aberasten lagundu izango zizulakoan. ■

